

AZAROAK
23
OSTEGUNA

LEARNING

1. ATALA:
KOHA MUNDUAN:
PROIEKTUAK ETA ERREALITATEAK

9:30
DOKUMENTAZIOA JASO

10:00
ONGIETORRIA ETA TOPAKETAREN
AURKEZPENA

Ane Rodríguez (Tabakalerako kultur zuzendaria)
Arantza Mariskal
(Ubik, sorkuntza liburutegiaren arduraduna)

10:15
KOHA EXPERIENCES ON LARGE
AND BRANCHED LIBRARIES:
TURKISH CASE

Mengü Yazıcıoğlu (Devinim Yazilim Ltd.)

Liburutegietan, Koha da mundu mailan software librerik erabiliena. Munduan 10.000 liburutegik baino gehiagok erabiltzen dutela uste da. Liburutegi txiki publiko edo pribatuetan erabili daiteke, baina baita handi batean ere. Turkiako herri liburutegi publikoetan egindako instalazioarik handienaren esperientzia partekatuko da. Edozein liburutegirako aproposa da Koha eta behar zehatz batzuek inplementatzea eta eskalablea egitea erraza da.

Gure proiektuetan Koha Devinim izendatu dezakegun Koharen bertsio bat instalatu dugu: 1.800.000 erabiltzailetik gora dituen, 17.000.000 dokumenturekin eta 11.000 liburutegi publikoetan ezarrita dagoena. Esperientzia eta ezagutza hau, liburutegi asko dituzten udalerritan sistema berriak ezartzeko erabiltzen dugu.

11:15
ATSEDENA

11:45
MABUHAY!
RESUMEN DE LA 2017 KOHA
INTERNATIONAL CONFERENCE

Cristina Gareta
(LKSIen projektuen arduraduna SCANBITen)

Koha komunitateak urtero ospatzen du konferentzia ofizial bat eta beti kontinente ezberdin batean burutzen da. Aurretik Paris, Frantzia (2006); Plano, Texas (2009); Wellington, Zeelanda Berria (2010); Thane, India (2011); Edinburgo, Eskozia (2012); Reno, Nevada (2013); Cordoba, Argentina (2014); Ibadan, Nigeria (2015) eta Tesalonika, Grezia (2016) antolatu izan zen. 2017rako aukeratutako kontinentea Asia izan zen eta hiria berriz, Manila, Filipinetan.

Nazioarteko antolatzaileek eta babesleek eta lekuan lekuko enpresek eta liburutegiek, Asiakoak eta Australiakoak batik bat, aurkeztu zituzten aurtengo edizioan (ekainak 19, 20 eta 21 bitarte ospatua), SIGB-en inguruko proiektu eta proposamenak. Hitzaldi guztiak KOHA nazioarteko komunitate osoarentzat streaming bidez hedatuak izan ziren. Konferentziaren muintetik KOHAko erabiltzaile guztientzat interesgarriak diren gaiak atera ziren. Guztien artean aipagarrienak hauek dira: nazioarteko batzorde teknikoak aurkeztutako KOHA-ren etorkizuneko bertsioen garapen planak, ERM Corral-ekin bateratzeko aurrerapenak, Maná ezagutza datu basea, produktu ezberdinen integrazioarako EBSCO-k askatutako plugin-ak, Turkiako liburutegi sareak KOHArekin edukitako esperientzia eta liburutegi espezializatuek kanpo-tesauroekin lan-egiteko gomendioak, besteak beste.

12:15

KOHA MANÁ E ILL: HERRAMIENTAS PARA COMPARTIR Y COLABORAR

Hugo Agud (Orex)

Liburutegien etorkizuna eta, oro har, gizarteena, partekatze eta elkarlanean aritzeko duten gaitasunak baldintzatuko du. Etengabe ikusten ari gara ekonomia kolaboratiboa izene-koaren adibide berriak, zeintzuetan pertsonak edota enpresek internet bidez erosten, saltzen edo kolaboratzen duten.

Lankidetzan aritzeko joera sozial berri hau liburutegien DNAren parte da. Katalogo kolektiboak bezalako zerbitzuek eta 239.50 edo modernoagoa den OAI-PMH bezalako teknologien garapenak, esaterako, argi erakusten dute liburutegiek elkarlanerako duten borondatea eta gaitasuna.

Gainera, iraultza teknologikoan murgilduta gaude, eta Koha ez da horretatik kanpo geratu. 2017an Koha urrats bat gehiago emango du lankidetzarantz, horretarako bi modulu berri aurkeztuz:

1. **Maná:** nazioarteko sare bat sortzean datza. Bertan, Koha konektatu ahal izango du, baita bere datuak eta baliabideak partekatu ere. Zerbitzari bakoitzak erregistro bibliografikoak, kardex-a, txosten estatistikoak, dokumentuen aipamenak, etab. partekatu ahal izango ditu.
2. **ILL:** Koharen barruan txertatuko den sistema honek sistema ezberdinetan funtzionatzen duten liburutegien arteko mailegua eta dokumentu fisiko eta elektronikoen kopien eskaeren kudeaketa ahalbidetuko ditu.

13:15

POTENCIALIDAD DEL PROYECTO FOLIO PARA LA COMUNIDAD KOHA Y PLUGINS PARA LA INTEGRACIÓN DE TECNOLOGÍA EBSCO EN KOHA

Tiago Fernandes

(EBSCO liburutegi zerbitzuko ingeniaria)

Carlos Campa (EBSCO Regional Sales Manager)

KOHACON17ren ereduari jarraituz, Folio Proiektua aurkeztuko da, Kohako erabiltzaileentzat oso interesgarria, epe erdi eta luzean komunitatearentzat hobekuntza nabariak eta aukera berriak ekarriko dituena. Marko honen barruan, dagoeneko Koha erabiltzaileentzat eskuragarri dauden EDS plugin-ak aurkeztuko dira, hala nola egoeraren nondik norako sakonagoa eta epe laburrera begira aurreikusitako hobekuntzak.

14:00

BAZKARIA - ATSEDENA

2. ATALA: NOLA ARI GARA EGITEN HEMEN?

16:00

15 X 15 SAIOAK:

// Las bibliotecas públicas de Galicia: una red de redes con Koha

Consuelo Meiriño

(Galiziako Liburutegi Sistemen zerbitziburua)

Galiziako Liburutegi Sareak bere katalogo kolektiboa Koha sistema integratu kudeatzailearekin gestionatzen du, sareen sarea den egitura konplexu bati moldatzen delako. Handitzen doan proiektu honek dagoeneko 45 liburutegi bateratzen ditu eta beste 70 gehitzeko bidean dago, liburutegi bakoitzaren jatorrizko informazioa babestuz eta katalogoko edukietan egon daitezken bikoizketak saihestuz. Kudeaketa sistemaren itzulpena galizierara, sistemaren bilakaera eta funtzionalitate berrien garapenengatik apustu egin da, funtzionamendu ezinhoba eta Sarearen beharrei erantzuna ematea bermatze aldera.

Hazten ari den proiektua, Galiziako liburutegi publiko guztien pixkanakako integrazioa bilatzen du. Liburutegien kudeaketa integraturako sistema pertsonalizatu honek Galiziako Liburutegi Publikoen Sareari erantzun nahi dio eta horrelako errealitate baten inplementatzean eredu garri izan.

// Koha: apuesta de la Biblioteca de la Universidad de Cádiz por el software libre

Aurora Márquez Pérez *(Prozesu Teknikoaren eta Kudeaketa Teknologikoaren koordinatzailea. Kadizeko Unibertsitateko Liburutegi, Artxibo eta Argitalpenen Saila)*

Universidad de Cádizeko Liburutegiak 2016an bere liburutegiak kudeatzeko sistema integratua Millennium-etik Kohara migratu zuen. Aurkezpenean sistemaren aldaketaren zein software libre aukeratzearen arrazoiak azalduko dira, nahiz eta espainiar estatuko unibertsitateetan minoritarioa den. Inplementazio prozesuaren nondik norakoa azalduko da eta baita produktio lehen urtearen ondoren lortutako esperientzia zein izan den.

// La experiencia Kobi en la Biblioteca de Cultura del MECD

Darío Martínez Bernardo *(Biblioteca de Culturaren zuzendaria. Dokumentazio eta Argitalpenen Zuzendariordetza Orokorra. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa)*

Biblioteca de Cultura, titulartasun estatala eta Hezkuntza, Kultura eta Kirolaren Ministeritzaren kudeaketa zuzena duen zentrua da. Madrileko Erregearen emparantzan dagoen Casa de las Siete Chimeneas eraikuntza historikoan kokatzen da. 2013 urtean Biblioteca de Culturak Absys Liburutegien Kudeaketa Sistema utzi eta Koha-Kobi kode irekira pasatzea erabaki zuen. Migrazio hau Estatuko Administrazio Nagusiko Liburutegien Koordinazio Orokor Batzordeak (CGCBAGE) sustatutako proiektuaren barnean ezarri zen modu koordinatuan liburutegien sisteman sartzeko. Duela gutxi KOBIn 1.22 bertsio berria instalatu da KOHA 3.22 bertsioan oinarrituta.

// Koha adaptado a fondo antiguo: la experiencia del Institutum Historicum Ordinis de Mercede y Sibadoc

M^a José Rucio Zamorano eta Sol Ugarte Fernández *(Catálogo Colectivo de Patrimonio Bibliográfico Mercedario proiektuaren kideak)*

2007an Mesedetako Ordenak bere komentuetan gordetzen zen ondare bibliografiko erreperatu eta hedatzeko proiektua hasten du. Helburua lortzeko lehen urratsak Gaztela, Aragoi eta Erroma lurraldeetako antzinako eskuizkribu eta monografiak katalogatzera zuzendu ziren. Lehen fasea amaitutakoan, Mesedetako Ondare Bibliografikoaren Katalogo Bateratua eratzea erabaki zen. Liburutegi ezberdinetako bildumek osotasuna lor zezaten, Ibermarc formatuan zeuden erregistroak Koha liburutegiak kudeatzeko sistema integratua erabiliz Marc 21era migratu ziren. Migrazioa eta Koha softwarea antzinako funtsen berezitasunetara egokitze-lanak Sibadoc enpresak burutu du.

// Integración de Koha y CORAL (ERM) para la gestión integral de recursos electrónicos y físicos

Hugo Agud (Orex)

Kohak erakutsi du bilduma fisikoak kudeatzeko tresna sendo, fidagarri eta osoenetakoa dela. Hala ere, ikerketa-erakunde batzuen kasuan, baliabide elektronikoek gero eta pisu gehiago hartu dute eta baliabide inprimatuak lekua kendu diete; horrek kudeaketa-behar berriak agerian utzi ditu.

2017an Koha komunitatea lanean aritu da baliabide fisikoak eta elektronikoak kudeatzeko bi tresna onenak, Koha eta Coral, integratzeko.

Koha eta Coralen integrazioak aukera emango die liburutegi baliabide fisiko zein elektronikoekin lotutako prozesu guztiak modu eraginkorrean kudeatzeko.

// Ubik-eko katalogoaren transformazioa: pezeratik kalera

Leire Mitxelena eta Natalia Montes (Ubik, Tabakalerako sorkuntza liburutegia)

Duela bi urte ospatu zen Kohaferencen Ubikek bere liburutegiko katalogoko lanak eta asmoak aurkeztu zituen. Ordu hartan, gauzatzen ari zen proiektua errealitate bihurtu da eta online dagoen katalogoa bidez, liburutegiko edukiak eta zerbitzuak herritarrekin hartu-emanen jarri dira.

Edizio honetan Ubikeko Opac-a aurkeztuko da: batetik, katalogoa liburutegi fisikoaren isla izateko nahia eta, bestetik, Ubikerako propio garatutako moldaketak nola ikusten diren online katalogoan.

Beti ere, helburua, katalogoa beste tresna bat izatea herritarren liburutegiaz eta bertako edukiez ikasteko, gozatzeko eta sortzeko delarik.

18:00
GALDERAK ETA EZTABAIDA

19:00
UBIK, TABAKALERAKO SORKUNTZA LIBURUTEGIRA BISITA

DOING

3. ATALA: GOAZEN LANERA

9:30

ZURE LANTEGIA AUKERATU

(partaide bakoitzak 3 lantegi hauetatik bakarra aukeratu behar du):

// 1. lantegia //

¿Estás pensando en pasarte a Koha? Te contamos lo que hemos aprendido de nuestra experiencia.

*Ainhoa Carcavilla eta Arantza Mendieta
(Eguía-Careaga Fundazioko SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa)*

Eguí-Careaga Fundazioko SIIS Ikerketa eta Dokumentazio zentroa 1972an sortu zen, eta politika sozial eta gizarte zerbitzuetan espezializatutako funtsa dokumentala du. Gaur egun espezializatutako argitalpenen 320.000 erreferentzia baino gehiago ditu - aldizkariak, aldizkarietako artikulak, monografiak-, araudiak eta prentsa berriak. Hausnarketa prozesu luze baten ostean, 2015eko hasieran, liburutegiaren kudeaketarako sistema moduan Koha ezarri zen, software propietario batetik libre batera pasatuz. Lantegian Koha aukeratu izanaren esperientzia partekatuko dugu: prozesu teknikoaren kudeaketa, zerbitzu eta produktuetarako.

Lantegian arreta honako arlo hauen gainean jarriko da:

- Softwarearen aukeraketa:
 - Zergatik Open Source sistema bat?
 - Zergatik Koha?
- Koharen instalazioa, konfigurazioa eta inplementazioa:
 - Oinarrizko parametroen definizioa: liburutegiak, item morak, katalogazio plantillak, etab.
 - Migrazioa: katalogoen konbertsioa Marc21era.
 - Webarekin integrazioa: VuFind.
- Aldaketaren ebaluazioa:
 - Koharekin zer irabazi dugun.
 - Koharekin zer galdu dugun.
- Gure esperientziarekin ikasitakoaren ondoren, zer egingo genuke desberdin?

// 2. lantegia //

Bajo el paraguas de Koha: integración de bibliotecas, soportes y aplicaciones web. Experiencia de un trabajo colaborativo.

*Elena Primo Peña eta Virginia Jiménez
(Planet, Biblioteca Nacional de Ciencias de la Salud)*

2012an Instituto de Salud Carlos III-k, Biblioteca Nacional de Ciencias de la Salud-aren bidez, Catálogo Colectivo Nacional de Publicaciones de Ciencias de la Salud (CNCS)-en sorkuntza sustatu zuen, izaera publiko eta sarbide irekikoa. Katalogo berriak egitura trinko bat bermatzea du helburu, non Espainiako osasun zientzietako liburutegi guztiak ordezkatuta egongo diren. Aldi berean, zerbitzuen maila hobetu nahi da eta baita osasun arloko liburutegiaren azpiegitura ere, kooperazioa, mailegua eta dokumentuen trukearen bidez bertako erabiltzaileentzat onuragarriak izateko. Erakunde publiko zein pribatuaren aurrean ordezkatuta egotea ere bilatzen da. Internet bidez eskuragarria den tresna honek, datuetara modu azkar, erraz eta moldakor batean heltzea ahalbidetzen du, web bidezko beste orrialde batzuek eta XML kontsulten bidez. 2012ko urrian katalogoa Kohara pasa eta liburutegiak beren funtsak eta zentroen informazioa integratzeko izapideak abiatu ziren.

CNCSa 3 aplikazioek osatzen dute:

- Koha. Argitalpenen erregistro bibliografikoak biltzen dituen katalogo nagusia kudeatzen du.
- Vufind. Kohatik ekarritako erregistro bibliografikoak indexatzen dituen online katalogoa eta CNCS-ko kide diren erakunde desberdinetako funtsa aldi berean kontsultatzea ahalbidetzen duen tresna.
- Administratzaile modulua. Erakunde berezko funtsen kudeaketarako beharrezko lanak baimentzen ditu.

Aurten CNCSko datu baseak 140.000 erregistro bibliografiko ditu, 19.934 aldizkariaren informazioa kargatu ditu eta 70.149 paperezko ale eta 383.647 elektronikoko integratu dira. 287 liburutegik osatzen dute: ospitale nagusienak, unibertsitateak, osasun kontseilaritza, laborategi eta Espainiako ikerketa zentroak.

Gaur egun, Beta fasean aurkitzen dago eta funtsen eguneratzean lanean, behin betiko irteera 2017ko amaierarako aurreikusten da.

// 3. lantegia //
Colabora con otras comunidades
Open Source y evoluciona tu software de
gestión de bibliotecas.

Cristina Garetá
(LKSien proiektuen arduraduna SCANBITen)

Open source komunitatea da kode irekiko software baten inguruan biltzen den erabiltzaile eta garatzaile taldea, modu kolaboratiboan eta denbora jasangarrian aplikazioa garatuko du. 1990 urte amaieran, software askea errazagoa zen erabiltzea eta enpresa asko erabiltzaile, hornitzaile eta garatzaile bihurtu ziren. Kideen arteko komunikazioa oso anitza da: Internet, posta-zerrendak, wikiak, foroak eta konferentziak edota erabiltzaileen arteko hitzordu arruntak. Komunitate mota horien beste ezaugarrietako bat batzorde tekniko baten presentzia da eta horrek erabakitzen du softwarearen bertsio berrien plangintza eta antolakuntza plana. KOHAren kasuan, 2000. urtean, eta, bereziki, 2010. urtetik aurrera, KOHAren erabilera oso handia izan da eta funtzionalitate berrietarako eskaerak gainditu egin ditu irabazi asmorik gabeko elkarteak jasan dezaken erantzun-gaitasuna.

Nahiz eta badiren osagai berrien garapen profesionala bere gain hartzen ari diren enpresak, eta diruz laguntzen dituzten erabiltzaileen nazio mailako elkarteak, modulu berriak epe motzean ezarri behar direnean, komunitatea bera izaten da beste liburutegietako open source softwareko komunitateekin elkarlanean aritzea erabakitzen duena. Bestalde, SIGB garapeneko azken joerek kode irekiak uzten duen elkarre-ragingarritasunaren alde eta sistema desintegratu delakoen alde egiten dute.

Lantegi honetan, liburutegien munduan dauden open source komunitate garrantzitsuenen gainbegiratu bat egingo da, zeinen aplikazioak KOHA-n bateratu daitezkeen. Helburua izango da epe motzeko soluzio osoa ematea, ekonomikoki eskuragarria izatea eta liburutegiak garai digitalean lehiakorak egitea, betiere, teknologia berriak erabiltzaileen onurarako erabiliz.

11:00
ATSEDENA

11:30
LANTEGIETAKO EDUKIEN
PARTEKATZEA

12:00
ETA ORAIN ZER? LAN-SAIOA

13:30
KOHA FERENCE 2017REN
BALORAZIOA ETA ITXIERA



+Info
info@tabakalera.eu
943 11 88 55

Andre zigarrogileak plaza, 1
20012 Donostia / San Sebastián
Gipuzkoa

tabakalera.eu



Laguntzailea:

